

# ZURI



(ON KARMELO ECHEGARAY JAUNARI)

Euskarak izan ditu  
Seme ernai asko,  
Ontasun eder ayek  
Argiratutzeko.  
Etziraden lo egon  
Lanak egiteko,  
¡Eta gure erriya  
Orla apaintzeko!  
Oraindik gure amak  
Semeak baditu,  
Orain beardet nik bat  
Emen argiratu.  
Erriyak bigalduta  
Madrillen billatu

Paper baliosoak  
Orrek egin ditu.  
Ayetan gauza onak  
Arki omen ditu,  
Laister nere ustian  
Argituko ditu.  
Danak daude esanaz  
Asko baliyo du,  
Gure ama Euskarak  
Kalterikan ez du.  
Orain daño ikusidet  
Nik beti ori alai.  
¡¡Bizi bedi luzaro  
Karmelo EcheGARAY!!

JOSÉ M. ARRIETA.

1893-ko Mayatzean.

